



SARDINA

HILEROKO PREZIOEN GARAPENA



2012. urtean, arrantzuriko sardina kopuruaren marka historikoa apurtu da 14.049 tonarekin, iaz baino %191 gehiago. Urrian porturatutako kantitate maximotik (5.318T) urrun, abenduan 43 tona jaso dira. Kotizazioak gora egin du jatorri (%16) eta helmugan (%2). Merkan ez da sardinarik saldu.


Prezioak (€/kg)

	Jatorri	Merkatu	Helmuga
Azken hilabetea *	0,72	4,00	4,47
Aurreko hilabetea *	0,62		4,40
(1) Aurtengo kanpainaren *	0,83	3,63	4,39
(2) Aurreko kanpainaren *	0,68	2,98	4,13
Bariazioa (1)/(2)	22%	22%	6%

* Batz besteko prezioa

Sardina, urte osoan arrantzatzen den espeziea da eta ez dio urte sasoi berezi bati men egiten. Horregatik jatorriko kotizazioen bariazioak handiak eta ohikoak dira. 2012ko batz besteko kotizazioak azken urtetako altuenak izan dira.


URTETIK URTERAKO PREZIOEN ALDAKETA



2011 eta 2012ko irailen arteko diferentzia %16 eta %20koa izan da merka eta helmugan hurrenez hurren. Merkako eta helmugako kotizazioek zazpigarren eta seigarren hilabetea daramate jarraian iaz jasotakoaren gainetik.

SARDINA

SARDINAREN BALIO KATEA



Sardina
Sardina pilchardus

Harrapaketa metodoa edo arrantza erremintak: Sare bidez, ingurasareak eta “sardinal” izenez ezaguturiko maila-sareekin batez ere. Beste aukera bat arrastea da. Mailasare arrantza motak arraina itsasoan odolustu dadin ahalbidetzen du, kalitate bikaineko produktua jasoaz. Argiekin egindako gaueko arrantza, edo gomendaturiko amuzkiarekin egunez bereziki. Ohiko amuzkia bakailaoaren arrabak dira.

Tamaina:

- Gehienekoa: 25 cm.
- Ohikoa: 15 - 20 cm.
- Gutxienekoa 11 cm.

Ezaugarri nabarmenenak:

- Freskoan kontsumitzeko estimatua, osorik edo xerratan “tximeleta”, irekia, tripaki eta hezurrik gabea, soltean edo ontzika komertzializatzen da, autozerbitzuek gehien erabiltzen duten salmenta era izanik.
- Bokartarekin batera dira batik bat arrain urdinak.

Informazio iturria: VV.AA. (2008). *Pescados y mariscos. Guía práctica*. Madrid: Mercasa.

Habitata: animalia herratikoa eta taldekoia da, eta sarda handiak osatu ohi ditu. Gazitasun handiko ur beroetan bizi ohi denez, iparraldeko kostaldeetan gutxitan aurki daiteke. Pelagiko honek 150 m arteko sakoneretan bizi daiteke; baina egunez 25-50 m artean egoten da, eta gauez, 15-30 cm artean ere. Orokorrean, kostaldeko uretan ematen du udaberria, eta ur sakonetan udazkena eta negua.

Deskribapena: obalo itxurako gorputz luzanga eta mehea du (fusiformea). Bizkarrak kolore urdinxka edo berdexka du, eta zerrenda urdin distiratsua luzeran. Zenbaitetan, orban beltzak ere baditu. Ezkatak handiak, meheak, deziduak eta neurri askotakoak dira, eta handiek txikiak ezkututzen dituzte. Buru puntaduna du, ezkatarik gabea, eta masailezurraren bi aldeak berdintsuak dira. 3 eta 5 arteko brankia-operkulu ildodun ditu, espezie honen bereizgarri. Betazalak dauzka begietan. Isats-hegats bifidoaz gain, gorputz erdian hasten bizkar-hegatsa eta uzki-hegatsa ditu, Horrez aparte, sabelaldean bi sabel-hegats txiki ditu. Bizkar-hegatsak 13-14 erradio ditu, eta uzki-hegatsak 15-19.